

Gutuna: *Tutoreari*

Egoera: Maite, zure ikaskide eta laguna, urduri eta beldurtuta dabil azken asteotan. Ez dizu ezer esan nahi, baina hainbat ikaskidek badakizue zer gertatzen zaion: ikastetxeko zenbaitek jazarri egiten dute, jo, burla egin, sare sozialetan txikitu... Etsita dago laguna, bakarrik, iheska, ez dakizu zer egin dezakeen hemendik aurrera...

Eta, kezkatuta, Itziar tutoreari Maiteren egoeraren berri ematea eta arazoa konpontzeko bidea egin dezala eskatzea pentsatu duzu.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** Itziar tutoreari
- **Zer:** Maiteren egoeraren larritasuna azaldu (jazarpenaren xehetasunak: gutxiespenak, irainak...); zure eta beste ikasle batzuen kezkak eta zalantzak adierazi; Maiteri laguntzeko eta bullying kasu hori konpontzeko urratsak proposatu; Itziar tutoreari arazoa bideratzeko eskabide zehatza egin
- **Nola:** posta elektronikoz edo postaz
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz



Bilbon, martxoaren 11n

Egun on, Itziar:

(Hemendik abiatuta, 150 hitz gutxienez)

IDAZLAN LABURRA / 1

AUKERATUTAKO GAIA	GUTUNA
-------------------	--------

150 hitz gutxienez

Aztertzaiela- rentzat		Aztertzaiela- rentzat
Punt.	<p>Kaixo Itziar. :</p>	
Punt.	<p>Badira aste batzuk Maite nire lagun eta ikaskidea, inoiz baino burumakurrago ikusten dudala. Berak niri ez esan arren, badakit gelakide batzuk jo, burla egin eta sare sozialetan txikitu egiten dutela.</p>	Dek. Erg.
Informazio nahasia. Pasarte ilunak.	<p>Arazoari konponbide bat emateko gertatutakoa zurekin mintzatzea pentsatu dut, berarekin hitz egiten ahalegindu ostean. Maiterekin hitz egitea eskertuko nizuke benetan gertatzen eta sentitzen duena jakiteko. Hala ere, bizpahiru ideia bururatu zaizkit egoera hobetzeko asmoz. Askotan ez gara konturatzen egiten dugun minaz, beraz, enpatizatzekeo tailerrak prestatzea eta bullyingaren inguruko hitzaldi bat ematea ondo egongo litzateke.</p>	
Dek.	<p><u>Itxuzi hori</u> egiten dioten pertsonekin <u>arreta handiagoa jartzea</u> eta bere gurasoei gertatutakoa azaltzea ezinbestekoa delakoan nago. Gainera, Maite dagoen egoeraren berri emango diet bere gurasoei, baina zuk ere gertatutakoa azaltzea izango litzateke aproposena. Lagunak <u>berari</u> gehiago hurbilduko gara gure babesaren sentitu dezan.</p>	- Punt. Punt. Punt.
Lex.	<p>Azkar jokatzeko espero dut bullying kasu hau gehiago okertu ez dadin eta Maitek denboraldi txar hau ahalik eta lehenen atzean utzi dezan.</p> <p>Mila esker zure arretagatik,</p> <p>Xxxx.</p>	



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LABURRA

Kalifikazioa: 4,5

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 9
-: 4, 5, 7, 15**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 1,5

Informazioa eman ematen du; hala ere, modu oso nahasian adierazi du eta ez da erraza zailtasunik gabe irakurtzea eta ulertzea.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 1

Erdiko paragrafoa anabasa da. Ideia guztiak hor txertatu ditu, bata bestearen ondoren, baina egoki lotu gabe. Nahasita daude gertaerak, aholkuak, idazten duenaren iritziak, eskatzen dena.... Puntuazio desegokiak ere ez dio batere laguntzen.

ZUZENTASUNA: 2

Gramatikaren arau nagusiak ondo bete ditu. Dena den, ez du ia egitura konplexurik erabili eta testu xumea da. Puntuazioan, ordea, akats asko ditu eta horrek asko oztopatzen du testuaren ulergarritasuna.